



10. ILDOA - KULTURA 10. ILDOAREN BERARIAZKO OINARRIAK: KULTUR PROIEKTUEI
ETA FINKATUTAKO EKITALDI ETA JAIALDIEI LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZAK

Kultura Zerbitzua



2024. URTEAN KULTUR PROIEKTUEI ETA FINKATUTAKO EKITALDI ETA JAIALDIEI LAGUNTZEKO GASTEIZKO UDALAREN DIRULAGUNTZA-DEIALDIA (10. ILDOA) ARAUTZEKO BERARIAZKO OINARRIAK

Gasteizko Udalbatzak 2023ko ekainaren 20an onetsi zuen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra. 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn (88. zk.) argitaratu zen ordenantza, eta udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) nahiz herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daiteke. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko zein betekizun eta betebeharrak bete beharko dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, eta abar.

1. DIRULAGUNTZEN ILDOA

Kultur proiektuei eta finkatutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea da jarraian adierazten diren jardueretara zuzenduriko dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenaren bidez emateko baldintzak arautzea.

- Hiriko kultur eskaintza zabaltzen eta hobetzen lagunduko duten kulturaren arloko sustapen, sorkuntza, prestakuntza eta zabalkunde-ekimenetan laguntzea.
- Dirulaguntza jasotzen duten kultur proiektuek irekiak izan beharko dute, Gasteizko udalerrian garatu eta gauzatu beharko dira, eta gasteiztar guztiei zuzenduak izan beharko dute; esperientzia berriak izan ahalko dira, edo lehendik dauden programa, ekitaldi eta jaialdiei jarraipena eman, eta kulturaren arloren baten barrukoak izan beharko dute: prestakuntza, sormena, zabalkundea, ikerketa, etab.
- Aurkezten diren proposamenetan ezingo da sartu Gasteizko Udalak onetsitako udal planei kalte egingo liekeen ekintzarik*, ezta ordenamendu juridikoak babesten dituen oinarritzko eskubideetako edozein urratzea lekarkeenik ere, hartara pertsona guztien eskubide eta askatasunak errespetatu daitezken.

*[Berdintasun Plana, Udalaren Gazte Plana, Mugikortasun Plana, Irisgarritasun Plana, Herritarren Partaidetzaren Plana, Udalaren Araudi Grafikoa, Hizkuntza Normalizazioa etab., zeinak Gasteizko Udalaren webgunean kontsulta baitaitezke: www.vitoria-gasteiz.org].

Eskakizun hauek bete beharko dituzte bereziki:

1. Berdintasun-plana. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko dute agiri, publizitate-kanpaina, irudi eta material orotan, emakumeen diskriminazio-irudiak eta estereotipo sexistak oro ekidinez, eta irudietan zenbait balio sustatu beharko dituzte, esaterako, berdintasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-



identitateen aniztasuna. Gainera, sexuaren aldagaia kontuan hartuko da estatistike-tan eta datu-bilketan.

2. Euskararen erabilera normalizatzeko plana. Ekitaldia ezagutzera emateko jardue-rak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira. Bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jarduera-ren publizitatea egiteko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

3. Udalaren araudi grafikoa. Erakunde-markaren zabalkundea: Gasteizko Udalaren erakunde-marka agertu beharko da diruz lagundutako jardueren publizitate edo pro-paganda-material orotan, ongi ikusteko moduan. Erakunde-markak behar ez bezala erabiltzea saihestu beharko da, zehazki, ezin izango dira markaren eta haren ele-mentuen altuera/zabalera proportzionaltasuna, formak, posizioa, koloreak, tipogra-fiak eta trazuak aldatu.

3. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Deialdi hau indarrean dagoen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) dago jasota, zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Tokiko Gobernu Batzarra.

Helburu hauek lortu nahi dira deialdiaren bidez: tokiko sorkuntza sustatzea, tokiko kulturaren arloko prestakuntza, sorkuntza, ekoizpena eta berrikuntza bultzatzeko xedez; tokiko ekoizpenek hiriko kultura-jardueretan presentzia esanguratsua eta orekatua izango dutela bermatzea; euskarazko kultura bultzatzeko programak sus-tatzea; kultura inklusiboa eta LGTBI kultura sortu eta ekoitzi dadin sustatzea jende gehiagori zabaltzea ahalbidetuko du, kultura-adierazpenen eta kulturarteko proiektu-en aniztasuna aitortzea, eta hezkuntza- eta prestakuntza-estrategiek bertako kul-tur baliabideak (hemengo artistak, espazioak, eskaintza eta eskea) egoki balioestea.

4. ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Honako hauek izan daitezke laguntza-ildo honen onuradun, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritako irizpideak eta betekizunak aintzat harturik eta betiere deialdiaren xedea (aurreko puntua) osorik betetzen bada:

- Profesional autonomoak eta kultura-sektoreko enpresak, bai eta xede na-gusia kultura duten elkarteak ere, estatutuetan hala jasota badago.

Federazio, konfederazio edo antzekoetan bildutako kultur elkarte eta entitateek ezin izango dute deialdi honetan proiekturik aurkeztu bakarka eta, aldi berean, entitate bateko kide gisa beste batzuekin batera. Halakorik gertatuz gero, bertan behera geratuko dira egoera horrekin identifikatzen diren eskabide guztiak.

Dirulaguntza eskatzen duten pertsonak edo entitateek Gasteizko udalerrian izan behar dute helbidea. Horretaz gain, pertsona juridikoek Eusko Jaurlaritzaren Elkar-



teen Erregistro Nagusian edo dena delako erregistro publikoan izena emanda egon beharko dute, eta datuak eguneratuta eduki. Alabaina, aintzat hartuta, bai Arabako Lurralde Historikoaren ezaugarriak, bai Arabako zein Gasteizko kultura plan estrategikoen arteko koordinazioa (zeinak Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak sustatzen baitituzte, hurrenez hurren), pertsona eta entitate eskatzaileek Arabako Lurralde Historikoko beste edozein udalerritan izan ahalko dute helbidea.

- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak egunean edukitzea. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean.

5. KONTZEPTUAK

Bi kontzeptutarako emango dira dirulaguntzak. Entitate bakoitzak proiektu bat eta bakarra aurkeztu ahalko du.

1. Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak. Kontzeptu osorako zuzkidura ekonomikoa: 175.000,00 euro.
2. Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integratzearako eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak. Kontzeptu osorako zuzkidura ekonomikoa: 25.000,00 euro.

Balorazio Batzorde Teknikoak izango du aurkeztutako proiektu bakoitza zein kontzeptutan sartuko den zehazteko ahalmena.

Aurkeztutako proiektuak baloratu ondoren, baldin eta kontzeptuetakoren bat hutsik geratzen bada edo kreditua sobera geratzen, Balorazio Batzorde Teknikoak kreditua kontzeptu batzuetatik beste batzuetara aldatzeko proposatu ahalko dio zinegotzi ordezkariari, betiere deialdi honetarako onetsitako aurrekontu-kreditua gainditu gabe.

6. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Deialdi honen barruan ematen diren laguntzak Hezkuntza eta Kultura Saileko Kultura Zerbitzuaren 2024ko ekitaldiko aurrekontuko 23.12.03.3341.489.33 partidako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez **BERREHUN MILA EUROKOA (200.000,00 €)** da horren zuzkidura.



7. AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

8. ESKABIDEAK AURKEZTEA

1. Informazioa eta dokumentazioa

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan, eta telefonoz, bi zenbaki hauekin: 010 (deialaren prezioa operadorearen tarifaren arabera) eta 945 16 11 00.

2. Izapideak

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Udalaren webgunean ageri den eredia erabili beharko da eskabidea egiteko (vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak).

Eskabide bakoitzarekin batera, deialdi honetan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Gasteizko Udalak egokitzen jotzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahalko dizkie entitate eskatzaileei, aurkeztutako dirulaguntza-eskabidea baloratu ahal izateko.

3. Entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak:

Dirulaguntza-eskabidea, udalaren webguneko inprimakia erabilita (vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak). Honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Pertsona fisikoa izanez gero: eskatzailearen nortasun-agiriaren kopia. Ordezkariek izanez gero, eskaria izenpetzen duenaren ordezkartza-ahalordea.
- Pertsona juridikoa izanez gero: elkarte edo entitate eskatzailearen legeko ordezkaria den pertsona fisikoaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta haren ordezkari aritzearen egiaztagiria.
- Entitatearen eskrituren edo estatutuen kopia eta, behar izatera, Eusko Jaurlaritzaren Elkarleen Erregistro Nagusian eta dagokion erregistro publikoan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

Proiektu bat erantsi beharko zaio eskabideari; horrek ez du inola ere 50 orrialdetik gora hartuko, eta gidoi hau proposatzen da idazteko:



- Proiektuaren oinarriak.
- Helburuen formulazioa.
- Proiektuaren azalpena.
- Metodologia.
- Jardueren zerrenda.
- Jardueren egutegia.
- Jardueren kokalekua.
- Nori zuzenduta dagoen.
- Aurreikusitako parte-hartzaile kopurua (kopurua eta kolektibo zehatza) eta publiko mota.
- Baliabide materialak eta giza baliabideak.
- Beste kolektibo batzuen inplikazioa.
- Ebaluazio-irizpideak.
- Jarduera ezagutarazteko baliabideak edota sistema.

Aurrekontu xehea:

- Gastuen zerrenda.
- Diru-sarreraren zerrenda, barne hartuz: eskatutako, aurreikusitako nahiz jasotako bestelako dirulaguntza edo laguntza ekonomikoak, izen-ematearen bitartez edo sarrera-salmentatik jasoko direnak, etab.

Nahitaez proiektua eta aurrekontua erantsi beharko zaizkio eskabideari, oinarri hauetan ezarritako eran eta epeetan.

Eskabide hutsa aurkezten bada, proiektua eta aurrekontua erantsi gabe, ez da tramitera onartuko.

Gainerako dokumentazioari dagokionez, 10 eguneko epea emango zaie interesdunei nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaie ezen, hala egiten ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela. Jakinarazpenak, nagusiki, posta elektronikoz egingo dira jaso izanaren egiaztagiriarekin, eskabidean ageri den helbidean.

9. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak emateko balorazio-irizpideak entitateak eskabidean eta erantsitako agirietan emandako datuak aintzat harturik aplikatuko dira.

Gehieneko puntuazioa: EHUN PUNTU

- Originaltasuna, berrikuntza, proiektua sendotzea: 15 puntu.



- Proiektuaren metodologia eta garapena: 15 puntu.
Proiektua gauzatzean eta jarduerak ebaluatzean baliatuko diren oinarriak, helburuak eta metodologia.
- Proiektuaren kalitatea eta interesa, kulturaren ikuspegitik: 50 puntu.
 - Proiektuaren garrantzi kulturala. 15 puntu.
 - Eragin kulturala hirian. 10 puntu.
 - Proiektuaren onuradunak: zein kolektibori zuzentzen zaion, parte-hartzaileen kopurua. 10 puntu.
 - Barne eta kanpo-komunikazioa. 5 puntu.
 - Proiektuan inplikaturako beste kolektibo batzuk. 10 puntu.
- Bideragarritasun ekonomikoa: 5 puntu.
Efikazia, baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak esleitzean.
- Euskararen erabilera, programaren garapenean: 5 puntu.
 - Adibideak: ekintzak, jarduerak, euskarak entitatearen irudian duen lekua (webgunea, sare sozialak, irudi korporatiboa...), entitateak euskararen normalizaziorako bultzatzen dituen neurriak (adibidez: euskara jakitea baloratzea langileak, begiraleak eta bestelako laguntzaileak kontratatzean...).
- Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzen garapena: 5 puntu.
 - Adibideak: gizon eta emakumeen presentzia orekatua proiektua burutzean, prestakuntza berdintasunaren alorrean, kontratazio-irizpideak, indarkeria sexistari erantzuteko kanpainak abiaraztea edo halakoren bati babesa ematea, eta abar.
- Tolerantzia eta kultura-aniztasuna sustatzen dituzten ekintzen garapena: 5 puntu.

10. DIRULAGUNTZA JASO AHAL IZATEKO PROGRAMA BAKOITZAK GUTXIENEZ LORTU BEHAR DUEN PUNTU-KOPURUA

Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira.

11. LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Norgehiagoka-erregimena baliatuko da deialdi honetako dirulaguntzak emateko, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren ildotik. Horrenbestez, dirulaguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, lehentasun-hurrenkera ezartze aldera oinarri hauetan adierazitako irizpideen arabera eta puntuaziorik handiena lortzen duten eskabideei emango zaizkie dirulaguntzak, beti ere deialdiaren berariazko oinarrietan finkatuko aurrekontu-zuzkiduraren kopurua inola ere gainditzen ez badu.



Behin gutxieneko puntu-kopurua lortuta (50 puntu), honela banatuko da eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa:

1. KONTZEPTUA: 175.000 euro.

1.- Eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen duten entitate guztiei, hasteko, 1.000 euro esleituko zaie. Aurrekontu osoari kopuru hori kenduko zaio.

2.- Aurrekontuaren gainerako zenbatekoa entitate onuradunek lortutako puntuen artean zatituko da gutxienez lortu behar diren 50 puntuak kenduta, eta hori puntu bati dagokion balioa izango da.

3.- Ondoren, balio hori entitate onuradun bakoitzak lortutako puntuengatik biderkatuko da, eta horren arabera lortuko da bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa. Esleitutako kopuruak ez du inolaz ere eskatutakoa gaindituko. Kopuruak esleitu ondoren soberako saldorik bada, hainbanaketa egingo da, eta kopuru hori lortutako puntuazioaren arabera banatuko da, eskatutako kopurura edo baimendutako gehienekora iritsi arte.

2. kontzeptua: 25.000 euro.

1.- Zenbateko osoa entitate onuradun guztiek lortutako puntuen artean zatituko da, eta hori puntu bati dagokion balioa izango da.

2.- Ondoren, balio hori entitate onuradun bakoitzak lortutako puntuengatik biderkatuko da, eta horren arabera lortuko da bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa. Esleitutako kopuruak ez du inolaz ere eskatutakoa gaindituko. Kopuruak esleitu ondoren soberako saldorik bada, hainbanaketa egingo da, eta kopuru hori lortutako puntuazioaren arabera banatuko da, eskatutako kopurura edo baimendutako gehienekora iritsi arte.

12. EZ DA DIRULAGUNTZARIK EMANGO HONELAKOETARAKO

- Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzen diren proiektuak.
- Helburu nagusitzat ez kultura sustatu eta zabaltzea, baizik eta beste batzuk (sozialak, kirolaren arlokoak, erlijiosoak, politikoak, osasunaren arlokoak, eskola eremukoak...) dituzten proiektuak.
- Batez ere eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat badira.
- Dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo programa kulturalak prestatu edo alde aurreko lanak egitea xede duten ekintzak.
- Proiektuaren garapenetik zuzenean eratortzen ez diren gastuak.

13. PROGRAMA EDO JARDUERA BAKOITZARI GEHIENEZ EMANGO ZAION DIRULAGUNTZA



- 1) Proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 70ekoa izango da dirulaguntza, gehienez ere. Dirulaguntzaren zenbatekoak inolaz ere ezingo du gainditu 15.000,00 euroko kopurua 1. kontzeptura aurkeztutako proiektu bakoitzeko, edo 4.000,00 euroko kopurua 2. kontzeptura aurkeztutako bakoitzeko.
- 2) Aurreko atalean adierazitako aurrekontua onesteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - a) Jarduera edo proiektua garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuek nahitaez 2024an eginak izan beharko dute, eta eskuratze-kostuak inolaz ere ezingo dira izan merkatuko baliotik gorakoak.
 - b) Ezingo da diruz lagundu daitekeen gastutzat jo BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitorpena egitera behartuta badago.
- 3) Baldin eta entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan aurreko atalaren ildotik diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko 1. atalean kontuan hartuko diren gastuak diruz lagundu daitezkeen gastuak zehazterakoan.

14. ESKABIDEAK BALORATU ETA IZAPIDETZEA, ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA EBAZTEA

- 1.- Behin eskabideak jaso eta tramiterako onartuta, eta kasu bakoitzean eskatutako betekizunak bete direla egiaztatu ondoren, balorazio-txosten tekniko eta ebazpen-proposamena idatziko dira, eremu bakoitzari dagokionez eta ezarritako irizpideen arabera.
- 2.- Saileko Administrazio Zerbitzuko burua izango da organo instrukzio-egilea, eta bera izango da presidentea, eta horrek ofizioz egingo ditu eskatutako dirulaguntzen ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.
- 3.- Hauek osatuko dute Balorazio Batzorde Teknikoa: Kultura Zerbitzuko burua, eta bera izango da presidentea, Programen Koordinazioko arduraduna, Kultur Ekintzen Ataleko arduraduna, Kultur Ekintzen Ataleko teknikari bat eta Kultura eta Hezkuntza Saileko Administrazio burua, azken hori idazkari lanetan, edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak.

Dirulaguntzak emateko orduan edozein zalantza argitu edo edozein erabaki hartzeko eskumena izango du batzorde horrek. Eskabide guztiak baloratu ondoren, txosten tekniko bat egingo da, eta horretan oinarrituz egingo da dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena.

Tokiko Gobernu Batzarrak izango du dirulaguntzak emateko eskumena.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak agortu egingo du administrazio-bidea, eta horren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.



Nolanahi ere, alde z aurretik aukerako berraztertze ko errekurts o a urkez da ite ke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurreztu harik eta hura espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurts o a urkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurreztu ahalko da, dagokion araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurts o a urkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publiko en Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

15. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA ETA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

1.- Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira. Emandako kopuruaren ehuneko 80 zinegotzi ordezkariak dirulaguntzak emateko ebazpena onesten duenean, eta gainerako ehuneko 20a, emandako dirulaguntza behar bezala justifikatutakoan.

2.- Justifikazioa egiaztatze ko fasean, Kultura Zerbitzuak egiaztatuko du entitateak osorik bete dituela oinarri hauetan ezarritako konpromisoak. Halaber, egiaztatuko du azkenean exekutatu eta justifikatutako zenbatekoa bat datorrela entitate onuradunak eskabidean aurreztutako aurrekontuarekin. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Horrek ez du eragoztziko bidegabe justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 40. artikulua ezarritako kasuetan.

Honako kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: entitate onuradunak Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik.

3.- Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatu ko edo nazioarteko edozein erakunde ko emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin. Hala ere, helburu berei erantzute ko beste dirulaguntzarik jasoz gero, emandako dirulaguntza egokitzerik izango da, beharrezko denaz gairdiko finantzaketarik izan ez dadin.

Deialdi honen barruan ematen diren dirulaguntzak ez dira bateragarri izango Udalaren beraren beste sail edo zerbitzu batzuek edo berari atxikitako beste erakunde batzuek xede, programa edo jarduera bererako ematen dituzten bestelako dirulaguntzekin, salbu eta aldeek, elkar hartuta, berariaz hala baimentzen badute.

16. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZE KO EPEA ETA MODUA

1.- Justifikatzeko epea

Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea lau hilabetekoa izango da, lagundutako jarduera amaitzen denetik.



2. Formatu digitalean aurkezten diren frogagiriak

PDF formatuan aurkeztu behar dira, eta digitalki sinatuta egon behar dute ezinbestean. Horretaz gain, kapituluaren edo gastu motaren arabera ordenatu beharko dira.

GOMENDIOAK: artxiboei zein eranskinei dagokienez, artxibo bakoitzaren gehieneko tamaina 20 MB izango da, eta gehieneko bereizmena, hazbeteko 20 puntukoa, zuri-beltzean.

3.- Justifikatzeko sistema.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik. Horretarako justifikazioko kontu sinplifikatuaren 2. atala bete beharko da, jarraian adierazten den bezala, eta bertan adierazi beste entitate publiko edo pribatu batzuen baliabideekin finantzatzen diren gastuak, eta entitate onuradunaren baliabide propioekin finantzatzen direnak.

Dirulaguntzaren onuradun diren pertsona edo entitateek dirulaguntza justifikatu beharko dute, egindako gastuaren **JUSTIFIKAZIO-KONTU SINPLIFIKATUA** aurkeztuta, jarraian adierazitakoari jarraituz eta udalaren webgunean (vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak) argitaratutako eredu baliatuta.

JUSTIFIKAZIO-KONTU SINPLIFIKATUAK alderdi hauek jaso beharko

ditu:

a) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta; gehienez ere 50 orrialde hartuko ditu. Agiri hauek erantsi beharko dira:

- Dirulaguntza jaso duen jardueraren dela eta egindako azterlan, programa, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.
- Entregatu beharreko memoria teknikoan, euskaraz egindako jardueren jarraipen-fitxa bete beharko da. Fitxa hori elkarte eta entitateen eskura dago udalaren webgunean:

<http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones>;

<http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>

- Sexuaren eta/edo generoaren arabera banakatutako informazioa alderdi hauei buruz:
 - ° emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak;
 - ° entitateko titularrak eta plantilla;
 - ° kontratatu den entitateko plantilla, halakorik bada;
 - ° genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzetan aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetzen duten beste adierazle batzuk.



b) Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazio-kontu sinplifikatuaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu:

1.- Diruz lagundutako jarduerarekin lotuta egindako gastuen zerrenda, honako hauek zehaztuta: faktura-zenbakia, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta ordainketa-data.

2.- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak zehaztuz, bazkideek diruz lagundutako jarduerak egiteko jarritako kuotak barne. Honako hauek adieraziko dira: zenbatekoa; diru-sarreraren jatorria den entitatea; administrazio publikoen, erakunde pribatuen edo publikoen dirulaguntzak, eta beste diru-sarrera batzuk.

3.- Erabili ez diren zenbatekoen itzulketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa likidatzearren.

4.- Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauei buruz:

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea burutzetik sortu direla eta Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

- Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena.

- Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta arauen arabera dagokion zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdian adierazten den ehunekotik gorakoa.

- Pertsona edo entitate onuradunaren adierazpena, non zehazten diren diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zenbatekoak eta jatorriak, edo, hala izanez gero, bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu ez dela adierazten.

Nolanahi ere, organo kudeatzaileak egokitzen jotzen dituen eta dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko aukera ematen duten justifikanteak egiaztatuko ditu, laginketa-teknikaren bidez. Horretarako, hautatutako gastuen frogagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio pertsona edo erakunde onuradunari.

Entitateen lagina lortzeko, izapidetzen diren dosierren ehuneko 30 aplikatuko da gutxienez; horien zenbatekoak dirulaguntza-deialdi honetarako bideratutako aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 izan beharko du gutxienez.

Entitateak laginketa-prozedura sistematiko baten bidez hautatuko dira. Metodo horren bidez, dossier-kopurua laginketa kopuruaz (izapidetutako



dosierren ehuneko 30) zatituko da, laginketa-tarte bat lortzeko. Ondoren, ausaz aukeratuko da laginaren lehen elementua, eta, ondoren, laginketa-tartetik eta laginaren lehen elementutik abiatuta, lagina osatuko duten gainerako entitateak hautatuko dira.

Adibide gisa: entitateen kopurua 27koa bada, eta egiaztatutako entitateen gutxieneko portzentajea ehuneko 30ekoa (hots, 9 entitate), aurreko bi zenbakien arteko zatidura izango den laginketa-tartea lortuko dugu; kasu honetan, 3. Ondoren, ausaz 1 eta 3 bitarteko zenbaki bat hautatuko da. Ausaz aukeratutako zenbakia 2a bada, adibidez, 2, 5, 8, 11, 14, 17, 20, 23 eta 26 zenbakiak dituzten dosierrek osatuko dute egiaztatu beharreko entitateen lagina. Dosier horien zenbatekoa aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 baino txikiagoa bada, ausaz beste zenbaki bat hautatuko da, eta modu berean jokatu da.

- c) Dietak:** Baldin eta dietarik ordaintzen bazaio proiektuan artista, hizlari eta abar gisa parte hartzen duen norbaiti, dagokion atala bete beharko da justifikazioan (pertsona bakoitzeko).

4.- Ez dira diruz lagunduko:

- a) Entitatearen lokalerako ondasunak erostera edo konpontzera bideratutakoak.
- b) Entitatearen mantentze- eta funtzionamendu-gastuak.

5.- Emandako dirulaguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa:

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar dezake berekin, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 40. Artikuluan xedatutakoaren ildotik.

17. AZPIKONTRATATZEA

2024ko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako "Azpikontratazioa" atalean xedatutakoari jarraituz egingo da, berezitasun honekin:

Jardueraren ehuneko 70era arte azpikontratatzeari baimentzen da dirulaguntzen ildo honetan.

Orobat, aipatutako 29. artikulua 7. puntuan xedatutakoarekin ildotik, onuradunak berekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahalko du jardura gauzatzeari, baldin eta organo emaileak aurretiaz baimena ematen badu (azpikontratatzeko baimena eskatzeko eredia baliatuz) eta kontratazioa merkatu-baldintzen arabera egiten bada.

Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 5.1 eta 16. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa baimentzeko eta hura elkarrekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatzeari baimentzeko eskumena.